

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2021eko abuztua

Euskal AEko landetxeetako eta apartamentu turistikoetako sarrera-kopurua, 2021eko abuztuan, 2019ko hil berean – COVID-19aren aurretikoan– erregistratutakoa baino handiagoa izan da

2020ko abuztuarekin alderatuta, sarrerek % 58,8 egin dute gora landetxeetan, eta % 54,9, apartamentu turistikoetan

Euskal AEko **landetxeetan**, abuztuan, 29.140 sarrera eta 90.259 ostatu-gau izan dira, guztira; alegia, aurreko urteko hil beraren aldean, % 58,8ko eta % 41,6ko gorakada egon da, hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera. Hala, 2019ko abuztuan jasotako balioak gaintitu dira – pandemiaren aurretikoak–; sarreretan, % 23,8ko igoera egon da, eta ostatu-gauen kopurua antzekoa izan da –90.486 ostatu-gau–, aldi berean.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2021eko abuztua

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/08	m/m-12 (%)	2021/08	m/m-12 (%)	2021/08	2020/08	plazaka		gelaka	
							2021/08	p.p.*	2021/08	p.p.*
EUSKAL AE	29.140	58,8	90.259	41,6	3,10	3,47	62,7	13,9	67,4	13,1
Estatukoak	26.069	58,1	82.118	40,0	3,15	3,56	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.071	64,9	8.141	60,6	2,65	2,72	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	5.296	76,1	13.190	47,4	2,49	2,98	39,6	10,7	45,9	11,1
Estatukoak	4.819	64,7	12.191	39,6	2,53	2,98	-	-	-	-
Atzeritarrak	477	488,9	999	362,5	2,09	2,67	-	-	-	-
BIZKAIA	8.618	64,7	27.776	42,8	3,22	3,72	65,9	15,1	70,2	13,6
Estatukoak	7.778	63,4	24.963	37,6	3,21	3,81	-	-	-	-
Atzeritarrak	840	77,6	2.813	114,6	3,35	2,77	-	-	-	-
GIPUZKOA	15.226	50,5	49.293	39,5	3,24	3,49	71,8	14,4	76,2	13,4
Estatukoak	13.472	53,0	44.964	41,4	3,34	3,61	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.754	34,1	4.329	22,3	2,47	2,71	-	-	-	-

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landetxeetan ostatu hartu duten pertsona gehienak Estatuko herritarrak izan dira: 26.069, Estatuko jatorrikoak (% 89,5) eta 3.071 (% 10,5), atzeritarrak. Ostatu-gauen kasuan, banaketa oso antzekoa izan da: % 91 Estatuko turistena izan da, eta % 9 baino ez atzeritarren ostatu-gauena. Aurreko urteko abuztuarekin alderatuta, zifra horietan % 58,1eko gorakada egon da Estatuko jatorriko sarreretan eta % 64,9koa, atzerriko jatorrikoetan. Ostatu-gauen kasuan, urte arteko hazkuntzak Estatuko herritarren ostatu-gauetan % 40,0koak izan dira, eta % 60,6koak, atzeritarrenetan.

Banaketa hori 2019ko abuztuan ikusitakoaz bestelakoa da; orduan, sarreraren % 21,9 eta ostatu-gauen % 18,9 atzeritarren artean izan zen.

Araba izan da 2020ko abuztuarekin alderatuta sarrerek gorakada handiena izan duten lurraldea (% 76,1), eta, ondoren, Bizkaia, % 64,7. Gipuzkoan, bestalde, sarrerek % 50,5 egin dute gora. Ostatu-gauek ere urte arteko bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban % 47,4 egin dute gora; Bizkaian, % 42,8, eta, Gipuzkoan, % 39,5.

2019ko abuztuarekin alderatuta, sarrerak % 19,6 handiagoak izan dira Araban, % 16,3 handiagoak Bizkaian eta % 30,2 handiagoak Gipuzkoan. Ostatu-gauen kopuru osoaren erkaketa pixka bat desberdina da; izan ere, Gipuzkoan, % 2,4 egin du gora, eta, Araban eta Bizkaian, % 7,5 eta % 1,0 egin du behera, hurrenez hurren.

Abuztuko batez besteko egonaldia 3,10 egunekoa izan da, aurreko urteko hil bereko 3,47 eguneko egonaldia baino pixka bat baxuagoa, eta 2019ko abuztuko 3,84 eguneko egonaldia baino baxuagoa. Lurralde historikoen arabera, batez besteko egonaldiaren bilakaera homogeneoa izan da. Hala, Araban 2020ko abuztuan batez besteko egonaldia 2,98 egunekoa izan zen eta, 2021eko abuztuan, 2,49 egunekoa. Bizkaian 3,72koa duela urtebete eta, azken hilean, 3,22koa, eta, Gipuzkoan, batez besteko egonaldia 3,49koa izan zen 2020ko abuztuan, eta 3,24 egunekoa, azken abuztuan.

Plazen araberrako okupazio-maila % 62,7koa izan da abuztuan, aurreko urtean baino ehuneko 13,9 puntu handiagoa, baina 2019ko abuztuko baino pixka bat baxuagoa (% 64,0koa izan zen orduan). Lurralde historikoen arabera, okupazio-maila, Araban, % 39,6koa izan da; Bizkaian, % 65,9koa, eta, Gipuzkoan, % 71,8koa.

Antzera, urte artean ehuneko 13,1 puntuko igoera egon dela kontuan hartuta, Euskal AEko landetxeetako logelen araberrako okupazio-maila, abuztuan, % 67,4koa izan da (2019ko abuztuan, % 68,7koa). Araban, % 45,9koa; Bizkaian, % 70,2koa, eta, Gipuzkoan, % 76,2koa.

2021eko abuztuan, landetxeen % 13,7 itxita egon da Euskal AEn hileko egun guztietan. Aurreko urteko hil berean, % 16,1 egon ziren itxita hil osoa. Lurraldeen arabera, Araban, landetxeen % 14,4 itxita egon dira abuztuan; Bizkaian, % 10,9, eta, Gipuzkoan, % 15,0.

TURISMO-APARTAMENTUAK

Apartamentu turistikoak direla eta, 2021eko abuztuan, sarrerek eta ostatu-gauek honako balio hauek izan dituzte: 14.413 eta 54.070, hurrenez hurren. Aurreko urteko abuztuarekin alderatuta, sarrerren igoera % 54,9koa izan da, eta ostatu-gauena, % 54,2koa. Gure erreferentzia 2019ko abuztua bada, COVID-19aren aurretikoa, establezimendu mota horretan erregistratutako sarrera eta ostatu-gauen kopuruak gora egin du, % 22,7 eta % 22,0, hurrenez hurren.

Estatuko jatorriko sarrerek % 46,7 egin dute gora urte arteko terminoetan eta atzerriko jatorrikoek, % 46,7. Ostatu-gauen kasuan, gorakadak % 51,9koak izan dira Estatuko jatorrien kasuan eta % 65,0ekoak, atzerriko jatorrikoen kasuan.

2019ko abuztuan, sarrerren % 39,7 atzerritarrena izan zen; hil honetan, % 21,6. Ostatu-gauak direla eta, atzerriko jatorrikoenak % 33,3 izan ziren 2019an, eta % 18,6, aurtengo abuztuan.

Arabian, sarrerek % 22,7 egin dute gora, urte arteko terminoetan, eta % 19,4, ostatu-gauek. Bizkaian, % 79,7 egin dute gora sarrerek, eta % 70,6 ostatu-gauek, eta, azkenik, Gipuzkoan, sarrerek % 33,0 egin dute gora, eta ostatu-gauek, % 57,8.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia, abuztuan, 3,75 egunekoa izan da, 2020ko abuztuan eta 2019ko abuztuan izan zen 3,77 eguneko batez besteko egonaldia baino pixka bat baxuagoa.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia, abuztuan, aldatu egin da lurraldeen artean. Gipuzkoan, batez besteko egonaldiak gora egin du, 2020ko abuztuko 3,81 egunetatik, 2021eko abuztuko 4,52 egunetara. Araban, behera egin du, 6,37 egunetatik 6,20 egunetara, eta, Bizkaian, 3,03 egunetatik, 2,88 egunetara.

Sarrerak, gaudiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2021eko abuztua

	Sarrerak		Gaudiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/08	m/m-12 (%)	2021/08	m/m-12 (%)	2021/08	2020/08	plazaka		apartamentuka	
							2021/08	p.p.*	2021/08	p.p.*
EUSKAL AE	14.413	54,9	54.070	54,2	3,75	3,77	47,5	9,5	59,1	-4,6
Estatukoak	11.302	46,7	44.019	51,9	3,89	3,76	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.112	94,4	10.052	65,0	3,23	3,81	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	1.550	22,7	9.607	19,4	6,20	6,37	33,4	5,4	66,5	9,7
Estatukoak	1.372	21,4	8.283	18,0	6,04	6,21	-	-	-	-
Atzeritarrak	178	33,5	1.324	28,9	7,43	7,69	-	-	-	-
BIZKAIA	8.345	79,7	24.031	70,6	2,88	3,03	57,6	19,6	79,8	19,3
Estatukoak	6.432	67,7	19.346	60,3	3,01	3,15	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.913	136,4	4.685	132,5	2,45	2,49	-	-	-	-
GIPUZKOA	4.518	33,0	20.432	57,8	4,52	3,81	47,3	-1,9	44,4	-30,2
Estatukoak	3.498	27,7	16.389	65,6	4,69	3,61	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.020	55,1	4.043	32,6	3,96	4,64	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko apartamentuen araberrako okupazio-maila, 2021eko abuztuan, % 59,1ekoa izan da; alegia, urte artean ehuneko 4,6 puntuko beherakada egon da, eta, 2019ko abuztuarekin alderatuta, % 19,5 puntukoa. Lurralde historikoen araberrako, Bizkaian apartamentuen araberrako okupazio-maila % 79,8koa izan da; Araban, % 66,5ekoa, eta, Gipuzkoan, % 44,4koa.

Plazen araberrako okupazio-mailak ehuneko 9,5 puntu egin du gora urte arteko terminoetan; % 47,5ekoa da, Euskal AErrako (2019ko abuztuan % 51,7koa izan zen). Bizkaian, maila hori % 57,6koa izan da; Gipuzkoan, % 47,3koa, eta, azkenik, Araban, % 33,4koa.

Euskal AEn, apartamentuen % 11,6 itxita egon dira 2021eko abuztuko egun guztietan, aurreko urteko hil berean baino ehuneko pixka bat txikiagoan (% 11,8). Hileko egun guztietan itxita egon diren apartamentuen proportzioa % 16,7koa izan da Araban; % 10,3koa, Bizkaian, eta % 10,3koa, Gipuzkoan.

Informazio-oharra

Landetxeen ETHlaren erantzun-tasa % 89,7koa izan da, eta apartamentu turistikoena, % 78,5ekoa, abuztuan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62